

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko ekainaren 29a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Atarrabia • Indurain Anaiek rokodromoa inauguratuko dute Nafarroako lehen eskalada txapelketarekin
Josu Etxezarreta • «Sokatira gainbehera joango da, laguntzarik ezean»

Amesgaiizto baten irudiak



II. Errepublika eta Espainiako gerra estudiatzeko, eskolako material multimedia karrikaratu berri du Nafarroako Gobernuak. Osaba Sebasen ametsa izeneko unitate didaktikoak garai hura dakar gogora. Osaba Sebasena, amesgaiiztoa izan zela ikusiko dute bigarren hezkuntzako ikasleek; Lizarrako alkatea EAJkoa zela eta demokrazia zapuzteko matxinatu zirenek, Osaba Sebasen ametsarekin egin zuten gisara, epaiketa egin gabe fusilatu zutela.

Lizarra ●

Bortz urteko bizitza

Gaztetxearen urteurrena ospatzeko ekitaldi anitz prestatu du Gazte Asanbladak



Lizarrako gaztetxeak bortz urte ditu, eta orain Udalak eraitsi nahi du. ● KRISTINA BERASAIN

BORTZGARREN URTEMUGA ospatzeko ekitaldiak hilaren 16an hasi ziren, eta bihar amaituko dira, egun handiarekin. Goiz-goizean herri kirolak izanen dira; eguerdian, herri bazkaria; arratsaldean, antzerkia; iluntzean, kalejira; eta gauean, kontzertua. Egun bete-betea beraz. Herri kirolak Remontibal eskola publikoan izanen dira; herri bazkaria gaztetxean, eguerdiko 14:00etan; Pedazos, migajas y escaseos antzezlanak 18:00etan; kalejira 20:30ean; eta kontzertua, 23:00etan, Jah'stas eta Peta Zeta taldeen eskutik. Tartean, zinema, txangoak, diapositiba emanaldiak, ipuin-kontalariak, hitzaldiak, mahai inguruak, argazki erakusketa, kontzertuak eta bertze izan dira.

Gaztetxearen historia

Martxoan Lizarrako Udalak soilairua botatzeko asmoa agertu zuenetik, Gazte Asanbladak

Gaztetxearen etorkizuna kolokan dagoen arren, Lizarrako Gazte Asanbladak egitarau oparoa prestatu du egunotarako eraikinaren eraisketaren aurka egin eta gaztetxe duin eta autogestionatu bat aldarrikatzeko.

eraisketaren aurkako ekitaldi ugari prestatu ditu, manifestazioak barne, eta biharko eguna aldarrikapen eguna izanen da; izan ere, gaztetxearen etorkizuna argi ez dagoen arren, gazteek aurrera jarraitzeko asmo irmoa erakutsi dute.

1996ko ekainean okupatu zuten Lizarrako gazteek armadaren eraikina izan zena. Aurretik, hiriko bertze zenbait eraikinetan kokatu izan zen behin-behineko gaztetxea, baina hainbat arazo izan zirela medio, duela bortz urte, egun Lizarrako Gaztetxea de-

na bere egin zuten. «Bortz urte hauetan, eraikin zahar bat baino ez zena atondu egin dugu. Gure beharretara egokitu dugu eraikina, eta, bertzeak bertze, liburutegia, taberna, gelak, kontzertuetarako agertokia eta abar prestatu dugu», adierazi dute Gazte Asanbladako kideek. «Lotsagarria da momentu jakin honetan Udalak hemendik bota nahi izatea. Hemendik botatzen bagaituzte, bortz urteko lanaz gain gure ilusioak ere hautsiko dituzte, kalean utziko gaituzte», gaineratu dute.

Egun 50 gazte inguruk parte hartzen dute gaztetxearen kudeaketan, eta bertze 200 batek ekitaldietan bat egiten dute. Gazteek gogor kritikatu dute Udalaren asmoa, eta herri ordezkariak ezer ez egiteaz salatu dituzte. «Bortz urte hauetan ez dira gurekin batere akordatu, eta gure gaztetxea bota egin nahi dute inolako alternatibarik eman gabe. Eraikitzen hasi ziren bertze gaztetxearen lanak aspalditik geldirik daude, eta oraindik ez dute erabaki etorkizunean eraikin horri zein erabilera eman. Kudeaketaren gaia ere onartezina da guretzako; izan ere, Udalak kanpoko enpresa bat kontratatu nahi du, eta gu ez gaude prest gure aisialdiarekin espekulatzeko. Guk gure buruaren jabe izan nahi dugu, eta Udala ez da gurekin fidatzen, ez du sinesten gure kudeatzeko gaitasunean».

→ Kristina Berasain

Lizarra ●

Eskulangile gazteen erakusketa

JOAN DEN ASTELEHENETIK ETA hurrengo ostirala bitartean, Lizarran eskulangile gazteen erakusketa paratu dute aurreneko aldiz. Gazteleku ireki berriaren erakusketa aretoan, Estellerriko hiru eskulangile gazteren lanak ikus daitezke. Hiru eskulangilek parte hartu dute aurreneko aldi honetan: Jorge Toledano (Aiegiko margolaria), Iratxe Beloki (Deikatzeluko, buztinarekin egiten du lan) eta Xabier Crespo (Lizarrakoa, larrua lantzen du). Hirurek bere azken lanen emaitza agertzen dute erakusketan, eta pozik agertu dira eskaintzarekin. «Guretzako oso aukera polita da», esan du Jorge Toledanok. «Maiz ez dugu gure lana ezagutzera emateko aukerarik, eta horrelako ekimenak txalogarriak dira oso».

Eskulangile gazteen aurreneko erakusketa hau Lizarrako Bambú eta Harriz-harri gazte taldeek antolatu dute, eta lehenengo aldi honetan hiru artisaubaino ez badituzte bildu ere, hurrengo urterako jende gehiago biltzea espero dute. «Azkar ibili gara erakusketa prestatzen, presaka. Udalak epe laburrean eman digu erakusketa egiteko baimena, eta denbora gutti izan dugu gauzak ongi prestatzeko. Gainera, egun hauek txarrak dira; izan ere, gazte gehienak azterketak egiten ari dira», erran du Bambu taldeko kide Maite Lopezek.

→ Kristina Berasain

Erakusketa

09:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara izanen da zabalik, lanegunetan, asteburuetan, 11:00etatik 13:30era eta 18:00etatik 22:00etara.

irulegitik

JOJO BIDART



Euskal Herria Zuzenean festibaleko koloretan apaintzen hasi da Arrosako herria. Ote eta sasien artean EHZ letra erraldoiak zizelduak izan dira Jarako mendi mazeletan. Baiona eta Garazi-Baigorri artean ibiltzen diren jendeak ohartuak dira Europako Herrien rocka ezagutarazi nahi duen Euskal Herriko festibal handiena hurbiltzen ari dela.

Badu bi aste jada lehen laguntzaileak mugitzen hasiak direla Sohatiako bordaldean. Tupin eta baxerak han, mahaiak hemen, oihalezko etxeak aldeko pentzean, idazkaritzako azpiegitura parte bat ahanzi gabe: telefonoak, faxak, Internet eta beste...

Arditegi zaharrean plantatua harat-hunat guzien koordinatzeko bulegoko ordenagailuetan laguntzaileen

Arrosako laguntzaileak

fitzak sailkatzen dira antolakuntzako beharren arabera.

Zerrenda horietan da, Baxenabarreko zolan, euskaldun gazterien erreferentzia bilakatua den uda hasierako hitzordu nagusiaren sekretua: 800 laguntzaileen elkarlana. Musika taldeen kopuruaren eta arrakastaren gainetik, erritmo indartsuak sortutako gorputz eta gogoen kalda baino gehiago, ehunka bildutako langileen arteko adiskidetasunak du egun hauetako berezitasuna hazten.

800 laguntzaile, batzuk hirietatik eta besteak base-rietatik, kostaldetik eta barnealdetik, Euskal Herrietik eta atzerriatik etorritakoak elkarlanean bilduak, proiektu komun bat bultzatzeko: Euskal Herri bizia, dinamikoa, bere kulturaz jabetua eta besteei idekia.

Arrosako festibalaren sehaskan sortu dira irratiaren topaketak eta aurten Hitz Egin sarea osatzen duten ipar eta hegoaldeko irratiak nahi lukete urrats berri bat egin elgarrekin.

Duela sei urte abiatu irratiaren arteko emankizunen trukaketak baino gehiago egin nahi lukete orain: produkzio eta difusio bateratuak. Xede horretaz interesatuak agertu dira zazpi probintzietako irrati libre frango, eta baliteke aurten beste urteetan baino ordezkari gehiago biltzea. Laster jakinen dugu zein erabaki aterako den bilkura horretatik, bai eta nolako obrak gauzatuko diren.

Irrati uhinen bidez Euskal Herri osoan eta zuzenean hedapena ukan dezala Arrosako 800 laguntzaileen elkarlanak.

Atarrabia ●

Eskalatzeko eremu berria

Rokodromo berria inauguratzeaz batera, Nafarroako lehen eskalada txapelketa egingen dute bihar

Nafarroak naturgune ezin hobeak ditu eskalatzeko, baina rokodromoak urri dira. Lagunarteko rokodromoen ostean, rokodromo publikoak datoz orain. Urte hasieran ireki zuten NUPekoa, bihar zabalduko dute Atarrabiakoa, eta Iruñean, Arantzadikoaren zain dira.

BIHAR INAUGURATUKO DUTE Atarrabiako Indurain Anaïen kiroldegiko rokodromoa, Nafarroako lehen udal rokodromoa, eta horrekin batera, Nafarroako lehen Eskalada Txapelketa egingen dute.


Nafarroako Mendi Federazioko lehendakari Koldo Goñik adierazi duenez, Nafarroan zarpitan antolatu dute *boulder* txapelketa, baina eskaladakorik ez dute antolatu izan horretarako instalaziorik ez zegoelako. «Atarrabian rokodromoa egingen zutela jakin bezain pronto, Nafarroako lehen eskalada txapelketa antolatzera animatu ginen, hémengo zaletasun handiari bultzada emateko». Rokodromo berria zortzi metro da altu eta hogeita bost metro zabal, eta ziuurren, zortzi bide ekipatuko dituzte. Nazioarteko txapelketak egiteko, gutienez, hamabi metroko altuera behar luke.

Biharko txapelketa goizeko hamarretan hasiko da, eta ber-

tan parte hartu nahi duenak ordubete lehenago eman dezake izena. Bederatzietan zabalduko dituzte instalazioak, ordubetez entrenatu ahal izateko. Hiru kategoría izanen dira: 25 urtez beheko emakumezkoak, 16 urtez beheko gizonezkoak, eta 25 urtez beheko gizonezkoak. Zailtasun txapelketa izanen da; bidea igotzen erortzen dena kanpoan geldituko da. Finalean, goren igotzen dena irabaziko du. Gazteenak, guti gorabehera, 6A mailan hasiko dira, eta zaharrenak, 7B mailan. Irabazleei kirol materiala emanen diete, eta parte-hartzaile guzietan, oroigarri bana.

Eskalada gizarteratu

Atarrabiakoa Nafarroan egiten duten lehen udal rokodromoa da. Atarrabiako Udaleko kirol zinegotzi Txema Juradok adierazi duenez, «udalbatzarrean rokodromoaz hitz egin genuen lehenbiziko aldian, esplikatuko behar izan genuen rokodromoa ez zela rock kontzertuak



Atarrabiakoa Nafarroan zabalduko duten lehen udal rokodromoa da. Irudian, rokodromoa egiteko lanak.

● OSKAR MONTERO

antolatzeko tokia». Rokodromoa egiteko 13.600.000 pezeta (544.000 libera) behar izan dituzte.

Biharko txapelketarekin inauguratuko dute rokodromoa, eta igandean jende guziri irekiko dizkiote ateak. «Atarrabia Mendi Taldekoak egun osoan han izanen dira nola eskalatzeko den erakusteko, eta ikus-entzunezko bat ere emango dute», erran du Txema Juradok. Izan ere, Atarrabiako Udalaren asmoa da eskalada gizarteratzea, eta, horretarako, besteak beste, haurrentzako

eskalada eskola sortu nahi dute.

Rokodromoa bihar inauguratuko dute, baina ez dute abuztua arte irekiko. Orduan, federatuek erabili ahal izanen dute, eta irailetik aurrera, edonork. Rokodromoa egunero izanen da zabalik, 09:00etatik 22:30era. Rokodromoa erabiltzeko prezioak merkeak izanen omen dira: 500 pezeta federatuendako eta Atarrabiako Kirol Patronatuaren txartela dutenendako, eta 700 beste guzientzako.

→ Asier Azpilikueta

Arantzadiko rokodromoa eta selekzioa

NAFARROAN ETXAURIKO, ARTEDERRETAKO, ITOIZKO EDO LARRAONAKO naturgune egokiak daude eskalatzeko, eta Iruñeko Ziadela ere hagitx leku ona da. Baina Nafarroako eguraldia euritsua da, eta rokodromo estaliak behar dira. Bihar zabalduko dute Atarrabiakoa, baina Nafarroako eskalatzailen kopuruak eta maila onak zerbait gehiago eskatzen dute, «rokodromoen Sadarra», Txema Juradoren hitzetan. Aspaldiko proiektua da Iruñeko Arantzadin rokodromoa egitea, baina urte luzez atzeratu egin da. Orain aurreproiektu fasean dago, eta badirudi Udala lana egiteko prest dagoela. Horregatik,

Mendi Federazioko Udalarekin hizketan ari dira, 11 metro luzekoa egin beharrean —proiektatua hala ageri da—, 12 metrokoa egin dezaten, hori baita nazioarteko txapelketak antolatzeko gutienezko neurria.

Rokodromoko neurriak gorabehera, Gobernu Kirol eta Gazteria Institutuko kide Emilio Millorrek erran du biharko txapelketa lehenbiziko urrats bat izaten ahal dela Nafarroako eskalada selekzioa osatzeko. Bere aburuz, txapelketak lehia dakar, eta horrekin, selekzioa sortzeko aukera.



urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Astronomiaz

Partikulen azeleragailu izugarri bat piztu da Iruñearen erdian. Printzipioz Burgosera abiatzen ziren Frankfurt motako milaka saltxitxek norabidea aldatu eta honantzaz doaz. Siam-en jo behar zuten telefono dei batzuek azken momentuan atzera egin eta Iturramako hotel batean jo dute, gela bat erreserbatzeko. Garagardoen banatzaileak, Madrilén, «nora» galdetu dio enkargatuari eta «Iruñera» erantzun diote. Iruñera gaur, Iruñera bihar, Iruñera etzi, seigarren almazenean dauden barril haiek guztiak eraman arte... Iruñera». Menorkan San Joaneko festak iraun duten bitartean han egon diren Tirapitxonekoak barraka kamioian sartu dute, kamioia ferryan, eta itsasoa-aren erdian daudela Iruñean eskatu behar dituzten paperez ari dira. Iparreko herritarrek, iparrekoak bereziki (zertarako engainatu: iparrekoak bakarrik), Interneten Iruñeko loturak klikatzen dituzte zezenen argazkiak eta abioietako prezioak ikusteko asmoz. Baztango zalditxo bat eta hura erosiko duen valentziarrak, horrela ez badu ematen ere, bidean dira. Bartzelonan oraindik egiteke dauden milaka kondoik badituzte jada beren kartoizko kaxak, eta kaxa bakoitzean izena jarrita (Iruñea), eta kantitate (500 kondo). Texasko neskak, oraindik ezagutzen ez duen kaliforniar bat Gazteluko plazan ero moduan muxukatuko duenak, adiskidearen galderari «To Pamplonia» erantzun dio (izenarekin nahastu da. Zer egingo diogu). Zaharicheko zelaletan Mihurako zezen beltz eta gazte horiek ere Iruñeko bidea hartu dute, bide iluna, algarrobo baten itzalean puzkerrak lasai asko botatzen ari diren arren. Mugimenduak zenbakitzaizak dira, astronomikoak. Hemen apuntatu ditudan zenbaitzuk, gainera, hipotesi hutsak besterik ez dira (agian Texasko neska ni muxukatuko nau ero moduan, eta ez kaliforniar bat. Hala bedi!). Elementu bitxi eta unibertsal horien arteko talkek Iruñeko partikulen azeleragailuan gertatuko dira eta horri «kristoren festa» deitzen diogu. Ezin jakin elementu solte horiek guztiak sortuko dituzten ondorioez. Zenbakitzaizak direlako, neurtezina, izarrak eta neutrinoen antzera: astronomikoak. ●

Osaba Sebasen irakasgia

II. Errepublikan eta Gerra Zibila estudianteko eskolako material multimedia karrikatu du Nafarroako berriak

OSABA SEBASAN AMETSA NAFARROAKO Gobernuak argitaratzen duen lehen unitate didaktikoa da. Unitateak Tierra Estella institutuko grabatu zuten bideoa du ardatz. Bertan Osaba Sebasen istorioa kontatzen da, Elvira ilobaren ikuspegitik. Sebas Acedo jaioterritik Lizarrara mugitzen da trenbidean lan egiteko. Lizarran ideia anarkistak baitaratuko ditu eta II. Errepublikaren etorrera begi onez ikusiko. Elvirak Sebasen bide bera egiten du eta Lizarran neska ibiliko da. Martin kazetariarekin maiteminduko da eta, horren bitartez, garai haietan Lizarran izan ziren gertaez jabetuko gara (Errepublikaren aldarrikapena, Euskal Estatutua onartzeko zezen-plazako bilera, Mola jeneralaren bilera Iratzen, Agirre alkatearen fusilatzea...). Sebas ere fusilatu egingen dute eta berarekin hilen da gizarte justua sortzeko ametsa.

Tierra Estella (Estellerrria) institutu politeknikoko ikasle zein irakasleek filmetako istorio bat bizi izan zuten 95-96 ikasturtean. Osaba Sebasen ametsa izenburuko filma grabatu zuten, II. Errepublika garaiko 37 minutuko kronika bat, Lizarran kokatua. Bideoarekin konformatu ez, eta makina bat euskarri biltzen duen unitate didaktiko osoa atera dute orain, Nafarroako Gobernuak Teknologia Berriak eta Hezkuntza programaren baitan.




JOXE LACALLE

Ikasleen parte-hartze aktiboa

Bideoak garaiko giro politiko eta soziala ezagutzeko parada eskaintzen du. Eta historia lezio hori ez zuen irakasle batek mahai baten atzetik eman. Beste modu batean egin zuten. Irakasle, ikasle eta gurasoen parte-hartze aktiboa eskatu zuten filma egiteak. Grabazio lanetan, denetara, berrehun bat ikasle izan ziren. Institutuko Gizarte Zientzietako mintegiak proiektuaren zuzendaritza eraman zuten, Arte mintegiak girotzea, eta Teknologia mintegia garabiaz eta *travellinga* egiteaz arduratu zen.

Hori guziaz antolatzeko OFI izeneko lantaldea osatu zuten. Proiektuko koordinatzaile Jorge Amezketa azaldu duenez, «ofi, oficialia, erratan zioten lanbide heziketako Tierra Estella ikastetxe horri. Lizarran denek ezagutzen zuten izen horrekin. Baten batek asmatu zuten OFIk *The Open Factory to The Imagination* erran nahi zuela, eta izen horrekin gelditu ginen halako proiektuak egiteko». Amezketaekin batera, Toño Ros, Angel Marco eta Javier Ibañez agertzen zaizkigu proiektuko egile bezala.

Aipatu bezala, Gobernuaren teknologia



berrien programaren zegoen bideoa egitea, eta urteak behar dira. Aukera teknologikoa du direnez, Osaba ametsa bideoa izateko didaktiko multimediala aldatu da. «Bideoa eta gero, hainbat ondoren, pentsatu bideoari beste erabateko eman behar genioke. Kas-texetara material laguna eramateko. Oso desegutzen zen. Tardelako irakasleek onpostu batzuk okupatzeko. Baina bitartean segitu genuen eskertuta atera ahal izan unitate didaktikoa».

Klasera

Unitate didaktikoa bertuterik onena da. Bertatik sortu dela. Hezkuntza departamentuak edukietan erabiltzeko gabe. Horregatik, nahiz eta eraren kanpoko itxura txuzain elebakarra izan, mametako edukia, ele bitan dago. Ez eta gaztelaniaz. Unitate didaktikoa ariketa batzuen bidez II. Errepublikan (1931-36) gizarte mugari anitz estudiantzen ahal izan nola, giro politiko, gizarte, musika eta herri kulturaren bidez. Bideoak, gerra... Errebelak bat grabatzeko bideoarekin irakasleak azaltzen Nafarroako Gobernuak unitate didaktikoa 400 ale egin ditu eta Hezkuntzako ikastetxe guztietan banatu ditu.

«Osaba Sebasen»

Bideoa + DVD + CD-ROM + irakaslearen faksimila + 1978ko Konstituzioa diskotik irakurteko liburuxka
www.pnte.cfnavarra.es/1978/osabasebas@pnte.cfnavarra.es



Agirre, benetako pertsonaia

Osaba Sebasen ametsa bideoan lau dira protagonista nagusiak: Sebas bera, Elvira iloba, Martin kazetaria eta Fortunato Agirre. Lau horietatik azkena besterik ez da benetakoa. Agirre Lizarrako alkatea zen 1936ko gertaera lazgarriak izan zirenean. Fortunato Agirre Lukin Estellerriko Arellanon jaio zen, 1893an. Lekarozko ikastetxean irakasle ikasketak egin eta maisu izan zen Aberin, Uharte eta Iruñean. Azken horretan izan zenean, EAJ alderdian sartu eta Batzokiko jardueretan ibili zen buru-belarri. Osasuna futbol taldeko

fundatzaileen artean ageri da bere izena, eta NBBko zein EBBko kide izan zen. 1926an Lizarran etxea finkatu eta 1931n EAJko zinegotzi atera zen. Urte horretan Lizarran egin zen euskal udalerrien bilerako buru izan zen. Bertan Euskal Estatuaren Estatutua onartu zuten (Lizarrako Estatutua). 1933tik Lizarrako alkate izan zen. 1936an Iratxe monasterioan Mola eta beste hainbat militar azpikariren bilera zegoela jakin zuelarik, hara bidali zituen udaltzainak. Baina inor ez atxilotzeko agindua jaso zuen Madrildik. Gero, faxisten altxamendua izan zenean, Agirre Arellanon atxilotu eta epaiketarik gabe fusilatu zuten.



KRISTINA BERIAIN

Jorge Amezketa PROIEKTUAREN KOORDINATZAILEA



OSKAR MONTERO

«Izugarrizko lana egin dugu unitate didaktikoa ele bitan izan zedin»

Tierra Estella ikastetxean irakasle egon zenean Osaba Sebasen ametsa proiektuko koordinatzailea izan zen Jorge Amezketa. Gerora Burlatako institutura joan zen, baina bideoaren atzetik etorri den material guziaz osatzen buru-belarri aritu da.

■ **Zuen materialarekin unitate didaktiko txukuna egin du Hezkuntza Departamentuak. Kontent egonen zarete, ezta?**

Bai, baina bideoa egin genuerako kontent geunden jada. Eta horregatik hain zuzen ere pentsatu genuen saiatu behar genuela bideoa beste ikastetxeentzako material lagungarria izan zedin. Hasi ginenean webgunea sortzea edo bideoa DVD formatuan ateratzea pentsaezina zen, baina, denbora pasa ahala, unitate didaktikoa zabaltzeko aukerakugaritu ziren. Eta halaxe egin genuen.

■ **Unitate didaktikoaren kanpoko itxura txukuna da, baina baita elebakarra ere (edukia ez bezala). Ez da euskararen herren gelditu?**

Ez dut uste. Ikasturte honetan egin dugu lanaren bikoizketa, eta klaseetan erabiltzeko material guziaz ele bitan dago, gaztelaniaz eta euskaraz. Jatorrizko bideoa, VHS formatuko, gaztelaniaz dago, bai, eta euskarazkorik ez dago, horrek beste zinta bat eskatuko lukeelako. Baina DVD teknologia bikoizketa egiteko aukera eskaintzen zigan eta horretan bi hizkuntzetan dago bideoa. Bestetik, unitate didaktikoko liburuxkoa, non bideoaren gaineko ariketak dauden, gaztelaniaz dago bakarrik, baina webgunetik eduki bera euskaraz har daiteke. Ikastetxe guztietan dago DVD irakurgailurik, eta zer esanik ez, Internet. Hortaz, teknologia berrien bidez edukia euskaraz jasotzen ahal da. Horretan izugarrizko lana egin dugu. Kanpoko itxurari dagokionez, beno, guk ez dugu horretan erabakitzen, mugak hor daude. Baina gu saiatu gara, egin egin dugu eta lortu duguna lortu dugu, besterik ez.


■ **Hizkuntza gorabehera, kontua da bideoa egiteak bertako historia ikertzeko aukera ezin hobea eskaini du zuela.**

Zertan da ikastetxeetan halako gaiak ikertzeko eta ikasteko modua pixka bat urrun gelditzen zaiela neska-mutilei. Guk pentsatu genuen bideoa egitea aukera ezin hobea zela beste modu batean lantzeko. Bideoan gertakizun orokorrak ageri dira, baina baita herrian bertan sorturikoak ere, istorio lokalagoak. Eta, horregatik, bideoan agertzen den atrezzo guziaz ikasleek lortu zuten, irudi egokiak sortzeko haiek eskuratu behar izan zituzten argazki zaharrak, aitona-amonekin hitz egin behar izan zuten... Irakasleak gustura inplikatu ziren lan horretan. Eta irakasleok berdin inplikatu ginen eta, adibidez, Fortunato Agirreraren arrebarekin hitz egin genuen. Bestetik, Osaba Sebasena gure hirugarren bideoa zen eta ikastetxean ohituta zuden gure lanetara, eta ikastetxe osoak parte hartu zuten horretan. Eta beharrezko denbora guziaz eman ziguten, ordutegi barrukoa. Horretan eskertzekoa da lankideen laguntza.



Aldarrikapenak

Itzuli dira. Lerrook idazten ditudan bitartean, gure seme kutun Jon —ikas-tolako irakasle talibanen baten burmuin garbiketaren poderioz, Juan Kruz bere benetako izenari uko egiten jarraitzen du— Action-Man-Tocapelotasekin jolasean ari da ordenagailuaren mahaiaren azpian, orain bere ukondotxoarekin nire hankartea kolpatuz, orain bere ointxoekin nire behatzak zapalduz. Nire begietako niri Larraitz telebistaren aitzinean dago, play-stationean —irakur pleisteixion—, street-fighter —estri-faite— izeneko borroka jokoa kolpeak banatzen, betiere bolumena toperaino igota, bai telebistarena, bai eta berea ere. Pantaila txikiak «skrash!» ezin likatsu eta odoltsuagoa aireratzten duen aldi oro, haur txikiaren ahots finak «jodete!» ezin kirrinkariagoa egiten du ulu.



Nuria Iturriagagoitia, berriz ere.



Caritas elkartearen Tonbola Iruñean.

re haien leloa zertxobait aldatuz: (Haurrentzako) aparkalekuak behar ditugu!

Karitaterik ez. Aldarrikapenekin segituz, nire uste apalean errenta aitortpenak errenta salaketa izan beharko luke. Inor ez dadila urduritu. Ez dut zergen aurkako prediku atzerakoirik egingen. Ez dut esaten ez denik ordaindu behar. Diodana da ordaindu aurretik egin beharreko kenkari kalkulu, aringarri bilaketa, agiri metaketa guztiak Administrazioak egin beharko lituzkeela, eta ez hiritarrak. Ez nik. Nik ez. Faborez. Izan ere, gauza jakina da nominadunok ez dugula sekreturik **Nuria Iturriagagoitia** buru duen Foru Ogasunarentzat —aitortu beharreko sekretua: nahita aipatu dut zutabe ho-

netan bigarrenez eledun erregionalista, haren argazki politetako bat berriro gozatu ahal izateko—. Eta sekretuak dituzten ez-nominadunok ez dituztela errenta aitortpenean aitortzen. Nolanahi ere, errenta aitortpena oraingoz ez denez errenta salaketa, berriro epetik kanpo aurkeztu dut nirea. Astelehenean egin nuen. Eta zur eta lur geratu nintzen. Haurrentzako aparkalekurik ez dagoenez, udan maiz eramaten ditugu seme-alabak Caritas elkartearen tonbolara, eta iaz saria egokitu zitzaigun: vespa bat. Kaskoa jarrita txindurri atomikoa ematen dudanez, jaso genuenetik garajejan sartuta dugu, mugitzeke. Hala ere, Foru Ogasunak vesparen ustezko balioaren laurdena ordainarazi dit aitortpenean. Karitaterik ez.

Gurasook, jakina, gure seme-alaben hezkuntzarekin kezkatu gaude, baina etxetik kanpo lan egiten dugun gurasook, halaber, aparkalekuak behar ditugu gure haurrentzat, eta, psikomotrizitate kolateralaz deus ez badakit ere, argi bezain garbi dakusat behar, nahi, desira hori ez dela, inondik inora ere, onartezina. Are gehiago, **Txutxin Almingolen** ereduari bai eta foru hiriburuko alkatesa Action-Woman-Erregionalistaren hirigintza egitasmo birrintzaileen Alde Zaharreko gainontzeko biktimen ereduari jarraiki, prest nago etxeko balkoian afixa aldarrikatzailea paratzeko, betie-



panpilonia zirkus

Pello Argiñarena

Pluribertsitatea

Aitak erabaki zuen alabak arkitektura ikastea. Amaren nahia izan zen 11.000 lagun biltzen dituen Opuseko Unibertsitate-ara bidaltzea. Teresa, Renfeko geltokian trenaren zain dago. Bitartean, Ruben, bere klaseko kidearekin ari da hizketan. Palentziarra da mutila eta ikasturtearen hasieratik neskarekin maitemindurik dago. Oso goiz omen da oraindik, ordea. Laster, Talgoan Albaceteko bidea hartuko du urte osoa Iruñean ikasten egon ondoren. Maletan ez darama suspentsorik. «Ezin nien gurasoei huts egin eta zintzo demonio ibili naiz urte osoan». Beste hiru lagunekin batera Pio XII etorbidean 130.000 pezetaren truke alokatu zuen etxean sarturik, egun osoa ikasten eman du.

Xabier, Izabatik gure hiriburura ziztu bi-

zian etorri da gaur ekaineko azterketen emaitzak jasotzera. Erronkariko Nafarroako Kutxan egiten du lan, eta berak dioenez, «neguak ilunak, luzeak eta aspergariak dira Pirinioen aldean». Orain dela bi urte, semea eskolan hasi zenean, berari ere ikasteko gogoa piztu zitzaion, eta herriko bi lagunekin, UNEDen eman zuen izena, beste 2.000 nafarren modura. Etxetik ikasten eta ikusten du Historia. Lasai. Patxadan. Sutondoan.

Fermin profesionala da. Alfer profesionala. Gurasoei bizi da, Iturraman. Duela zortzi urte Zuzenbidea ikasten hasi zenetik okerrera egin du. Larraonan ere nahiko ikasle traketsa izan omen zen. 9.000 ikasle dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoan baino ordu gehiago ema-



NUP da nafar ikasle gehien biltzen dituen unibertsitatea.

ten du Astronomia Elkartearen. Zoraturik dago asteroide, eklipse eta izarrei begira. Munduarekin harremana ez galtzeko, «ikaskideekin hitzordua egiten dut apunteak jasotzeko edo afaltzera joateko». Atzo goizean ilargitik jaitsi eta unibertsitatean agertu zen. Aurten ere ez du amaituko karrera. Etxean ez diote aspaldi matri-

ibili dira azken egun hauetan, eta asteburuan, Irungo jaietara joanen dira Maddalenen furgonetan, agurra ospatzera. «Ez naiz esaten duten bezain parrandazalea. Kontua da kazetariok oso gertutik ezagutu beharra daukagula kalea». Kostata baina azkenean bukatu ditu ikasketak eta lizentziatua da. Beste hamaika bezala, noski.


kula ordaintzen, eta sanferminetan berriz ere Kale Berriko tabernan ariko da lanean.

Txantrea atzean utzi eta, euskaraz ikasi nahi duten beste hainbat gazte nafarrek bezala, Lejoara jo zuen Iratik. Zorionez, euskararen egoera asko aldatu da gurean. Jakina denez, Chinchilla Kalean euskal adarreko fakultate berria zabaldu dute. Hondartzan

Josu Etxezarreta

ARESO SOKATIRA TALDEKO ENTRENATZAILEA

«Sokatira gainbehera joango da, laguntzarik ezean»



Ekainaren 9an hasi zen Euskal Herriko sokatira txapelketa eta bertan, lehenbizikoz, Nafarroako talde bat ari da lehian. Zortzi urtez goma gainean tiratu ondoren, Aresokoek aurten ekin diote lurrean tiratzeari. Nuarbek emandako laguntza ezinbestekoa izan zaie txapelketan parte hartzeko.

ARESO ETA LEITZAKOAK DIRA tiralari gehienak, baina bada Azpirotz eta Goizuetakorik. 18 eta 31 urte bitarteko gazte hauek lana bukatutakoan entrenatzen dira, Leitzako futbol zelaian.

■ **Zorionak, aurrenekoz ari baita Nafarroako talde bat Euskal Herriko lur gaineko txapelketan. Zer moduz moldatzen ari zarete?**

Kontuan hartuta lurrean gure lehenengo urtea dela, nahiko ongi hasi gara. Saikapenean badira zenbait talde gure atzean; beraz, gustura. Oraindik ez gara asentatzen ikus daiteke, posturak eta mugimenduak ezberdinak baitira. Baina badakigu sufritzen.

■ **Lan handia egin behar izan al duzue txapelketan parte hartzeko?**

Bai. Gomatik lur gainera pasatzea aldaketa handia izan da, bien artean alde dezente baitago. Gainera, entrenatzeko tokia topatu behar izan dugu, baina, azkenerako, jendea animatu egin da eta aurrera egin dugu.

■ **Zu izan zinen taldearen sortzaileetako bat. Noiz eta nola sortu zen?**

Herrian eskaera bat zegoelako. Duela zortzi bat urte gazte koadrila bat talde bat sortu nahian zebilen eta ia lagunduko ote nien galdetu zidaten. Goman hasi ginen eta aurten lur gainera pasatu gara.

■ **Zergatik utziko diozue goma gainean tiratzeari?**

Taldeak zerbait falta zuela sumatzen zuelako. Lurrak gomak ez daukan gauza asko dauka. Kanpoari begira, adibidez, lurrak indar gehiago dauka. Goma leku estalietan egiten da, negu partean. Udan lurrean tiratzeak beste gogo bat ematen du. Honetaz gain, lurra mugimendu eta posturen aldetik osatuagoa da.

■ **Antza, ikusmin handia sortu du zuen parte-hartzeak beste taldeen artean.**

Bai, talde gutxi daudenez, berri bat aritzeak animo gehiago ematen du. Gainera, Areso goman puntako taldea zenez, lur gainean nola moldatuko den jakin-mina piztu du.

■ **Batetik, Nuarbeko tiralari; bestetik, Aresoko entrenatzailea. Zer moduz moldatzen zara?**

Egunero, han ez bada hemen, pisu samarra geratzen da, baina gustura, talde berria atera baita.

■ **Kezkarik sortzen al dizu entrenatzen ari zaren taldearen kontra tiratzea?**

Ez, bi taldeek ezagutzen nauten eta badakigu gauzak nola dauden. Beraz, alde horretatik ez daukat kezkarik. Gainera,

«Jende gutxi hurbiltzen da tiradak ikustera eta horrek pena ematen digu. Jendeari joatea kostatzen zaio, eta antolatzaileek, batzuetan, ez dute erretzen hurbiltzea»

txapelketa Aresorekin egingo dut eta, beharrik ez badago, ez dut Nuarbekin tiratuko. Suitzako Europako Txapelketarako, ordea, hitza emanda daukat Nuarbekin tiratzeko.

■ **Denbora librez, beraz, larri ibiliko zara, ezta?**

Bai, oso. Etxean kezkatuta daukat. Hala ere, datorren urtean tiralari izateari utziko diot, 25 urte beteko baitira sokatiran hasi nintzela.

■ **Eta Aresokoekin segituko al duzu?**

Talderik egonez gero eta jendeak gogo baldin badauka, nik uste baietz. Orain ez dago esaterik. Txapelketan zer egingo dugun ikusi egin behar da.

■ **Badirudi jende gutxi joaten dela tiradak ikustera eta hedabideek ez diotela kasu handirik egiten txapelketari...**

Bai, horrek pena handia ematen digu. Jendeari joatea kostatzen zaio eta antolatzaileek, batzuetan, ez dute erraztasunik ematen jendea etor dadin. Herrian bertan egin beharrean askotan toki urrunetan antolatzen dira tiradak eta jendea ez da animatzen.

■ **Kezkatzen al zaitu sokatiraren etorkizunak?**

Bai. Nafarroan gu hasi ginean beste herri askotan ere taldeak sortu ziren, baita desagertu ere bai. Koadrilak festa giroan hasten ziren sokatiran, baina, aurrera segitzeko, gauzak ongi egin behar dira eta, horrek sakrifizioa eskatzen duenez, talde asko desagertu dira. Bestalde, Federazioak, Gobernuak eta Eskolak laguntzen ez badute, sokatira gainbehera joango da.

→ Estibalitz Ortega

soslaia

Azpeitiko Nuarbe auzokoa da Josu Etxezarreta. Bertan bizi izan zen Aresora ezkondu zen arte, 1992ra arte hain zuzen. Bi seme ditu: Adur eta Beñat, bost eta urte eta erdikoak.

Etxezarretak 39 urte dauzka eta bizitza erdia baino gehiago eman du sokatira munduan. Duela 24 urte, lagun eta anaiekin batera, Nuarben hasi zen tiratzen eta, pena handia ematen badio ere, datorren urtean erretiratuko da. Areso taldearen sortzaileetako bat da.

Igeltsero lanetan ibiltzen da, eta libre dagoenean mendira onddo bila joatea gustuko du. Kirolzale amorratua da. Sokatira ez ezik futbolearen ere ibiltzen da tarteka eta edozein motatako kirola ikustea maite du.



Nafar Kronika

Martxelo Sotes

Oe, oe, oe...

Osasunari buruz ez idazteko eskatu zidaten: «...otoi, arren eta mesedez ez ezazu Osasunari buruz idatzi, jadanik nahiko hitz egin eta izkiriatu baitute gorritxoan azken garaipenari buruz». Bai, garaipena; Anoetan jokatuak azken partida, Osasunaren garaipen garbia izan zen eta. Detergente onak bezalaxe, zuri-zuria.

Bai lagunok, eskatutakoari jaramonik egin gabe, Osasuna bihotzena, edo jarraitzaileen artean bihotzekoak areagotzen dituen pubol-taldea, izanen dugu hizpide.

Ezbeharrak nagusi izan den denboraldian, Bigarren Mailara zeraman sokatik zintzilik egon dira gorritxoak. Pentsatzen hasiak ginen ez ote zuten gaztelaniatzko goitizen xelebrea, farolilloarena alegia, Osasunaren oho-retan aipatzen, hau ere gorritxoa baita. Dena dela, pena-garaien ondoren, garaipena etorri da. Eta guzti-guztiak pozaren pozez, ipuinetan bezalaxe. Izan ere, zerrendaren bukaera partean sailkatuta gelditzea garaipena baita. Eta zer demontre, bibliko samarrak jarritz gero, etorriko da eguna noiz azkenekoak aurrenekoak izanen diren: *beatus ille*.

Ospakizun handiak egin dituzte, pentsatzekoa zenez. Eskerrak Txanpinoi Liga irabazi ez duten... Finean zer da Osasuna? Kontraesanak kontraesan, UPNko mutur-zaleenik handienak, nahiz eta oraindik eskuratu ez duten botere-eremu bakarra den, gustura asko oihukatzen duen euskarazko hitza. Hitz bakanetan: Osasunarena nafar guztiak batzen gaituen bandera bakarra da. Eskuindarrak eta ezkertiarak, elizkoiak eta ateoak, argalak eta potoloak, futbolzaleak eta futbolfoboak. Bai, azken hauek ere bai. Futbolfobo, ezkertiar, ateo... eta potolo hau dagoeneko osasunazale porrokatua duzue.

Izan ere, Patxi Zabaletak behin Iruñeko feriei buruz ari zela esan zuen modu berean, zezenketak ez zituen gehiegi atsegin, sanferminetakoak bai, ordea. Eta Futbolarekin beste horrenbeste: futbolzale amorratuak ez izan arren, osasunazaleak gara zeharo.

Tira, Gabonetako loteria egokitu ez zai-gunean —hau da: beti— esaten dena errepikatu beharko dugu: garrantzitsua Osasuna da.

gure aukerak

MUSIKA

- **Zangoza:** Gaur, 22:30etik aurrera, pop-rock lehiaketako finala jokatu dute Arkupeetako plazan. Ondoren, Tonino Caroteneren kontzertua izanen da.
- **Atarrabia:** Narco, Hyssopus eta Bhatoo taldeek Udaletxe plazan joko dute gaur, 23:00etan.
- **Iruñea:** Bihar, Nafarroa Oinez-en aldeko jaialdi erraldoia izanen da Sadarren, 18:00etatik aurrera. Takolo, Pirritx eta Porrotxek ikastolen bestarako kanta aurkeztuko dute. Gero ondokoek joko dute: Kepa Junkerak, Budiñok, Breagek, Tuan Doctor Deslaik, Soblindek eta Bolek.
- **Barañain:** Kizio taldearen kontzertua izanen da bihar gaztetxean, 21:00etan.
- **Lizarra:** Jah'stas eta Peta Zeta taldeak gaztetxean izanen dira bihar, 23:00etan.
- **Iruztun:** El Color de la Duda eta Ambulance, Nafarroako Gobernuo pop-rock lehiaketako irabazleak, kultur etxean izanen dira bihar, 23:30ean.

ANTZERKIA

- **Zangoza:** Pantha Rei taldeak *Sarabahaurrentzako antzezlan*a eskainiko du bihar, 18:00etan, Arkupeetako plazan.

ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** *En el entorno de Dakar* Paco Yerraren argazki erakusketa Zabaldin ikus daiteke bihar arte.
- **Iruñea:** *El médico y la ciudad*, Jose Joaquín Arzuriren omenezko argazki erakusketa, Medikuen Elkargoan egongo da uztailearen 14 arte.
- **Iruñea:** Aurtengo sanferminetako kartel lehiaketako lanak Descalzos 72ko aretoan egongo dira uztailearen 21a arte.

LEHIAKETAK

- **Zangoza:** Albreteko Enrique

Zangozarrak ikerkuntza lehiaketarako lanak uztailearen 30a baino lehen aurkeztu behar dira, Zangozako udaletxean. Lanek Zangozari eta zangozarrei buruzkoak izan behar dute. 50.000 pezetak hiru sari banatuko dira.

► **Iruñea:** Umeentzako Antzerki Testuen X. Lehiaketa abiatu du Nafarroako Antzerki Eskolak. Egile bakoitzak, gehienez, hiru testu aurkeztu ahal ditu, ondoko baldintza hauekin: argitaratu gabeko originalak izatea eta haurrentzako antzezlanek irau ohi dutena irautea. Lanak abuztuaren 1a baino lehen aurkeztu behar dira,

antzerki eskolan (San Agustín, 5, 31001 Iruñea). Diru sari bakarra finkatu da kategoria bakoitzean (euskara eta gaztelania), eta Iruñeko Udalak emango du: 250.000 pezeta.

BESTAK

- **Burlata:** Burlatako Eguna ospatuko dute igandean: dianak (9:30); erraldoiak eta buruhandiak (11:00); eskulangileen erakusketa Ezkabazabal plazan (11:30); herri kirolak Obrarietako plazan (11:30); konpartsa tikiaren aurkezpena Ezkabazabal (13:00); triki poteoa Ezka-

bazabaletik (14:00); herri bazakaria (14:30) eta dantzaldia (17:00) Ermitaberrin; euskal festa mundiala Euskal Herria peñan (20:00).

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Gaur da azken eguna Gazte Kontseiluak udarako eskaintzen dituen hiru lanpostuetarako eskaera egiteko. Kontseiluak bulegorako administratzaile bat behar du, eta bi osasun teknikari. Interesatuak Agoitz karrakako INEMeko bulegora jo behar dute eta bertan galdetu.

● JOXE LACALLE



Do you speak English?

Ea ingelesez badakizun, alegia. Argazkiko haurrak horretan ari dira, ingelesa ikasten. Horrelako talde bitxiak ikusi ahal izan dira egunotan Iruñeko Zitudadelan: irakaslea aulkian eserita, buruan kolore bateko bisera duela, eta horren aitzinean, haur taldetxoak beste kolore bateko biserekin. Titxerra haurrak prestatzen ari da, sanferminetan atzerritarrekin batera arazorik ez izateko. Nabarrieriako iturritik behera erori nahi duen australiarri: «Go straight on and don't use parachute». Don Simon tetrabikena bila dabilen estatubatuarri: «You can buy it in that house, in Chinchilla's street». Eta erraldoietan molestatzeko ari den kanadarri: «Suck my dick, you fucking bastard!». Ezkerraldean dagoen haurri, ordea, gehiago interesatzen zitzaion zapata azpian itsasi zitzaion lerdea kentzea. Sanferminetarako prestatzen bera ere.